

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BARAKALDOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2015.

Joan den maiatzaren 18an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Osoko bilkurak Barakaldoko Udalaren 2015eko ekitaldiari dagokion kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren gaineko txostena onartu zuen; baita, tokiko erakunde autonomoena (Barakaldoko Haur Eskolak, Barakaldoren Garapen Osorako Toki Erakunde Autonomoa (Inguralde), Udal Kirol Erakundea eta Barakaldoko Euskara Udal Erakundea) eta sozietate publikoena ere (Eretza Hirigintza Kudeatzeko Sozietatea, Barakaldo Antzokia eta Taller Usoa Lantegia). Txostenari Osoko bilkurako kide batek boto partikularra jarri dio.

HKEEk **aldeko iritzia** eman du Barakaldoko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakunde guztien kontuei dagokienez, unean uneko salbuespen batzuetan izan ezik. Bada, txostenak kontularitzako hainbat doiketa jaso ditu, Udalaren Diruzaintza Geldikina 5,4 milioi euroan murriztuko luketenak. Gainera, ezin balioztatu izan da Taller Usoa Lantegiaren egoera balantzean izakinen narriaduragatik erregistratu den zenbatekoaren zuzentasuna eta berebat, ez du bere aribidea gauzatzeko baliatzen dituen pabiloiak kokatzen diren lursailen lagapena erregistratu, zeinak Udalarenak diren.

Fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak **finantza egoera** du aztergai eta azpimarratu du **Diruzaintza Geldikin positiboa** duela eta Udalak **zorpetzeari maila txikian** eutsi diola. Etorkizunean ere aurrekontuko gastu eta sarreraren gainean kontrol zorrotza izatea aholkatzen du, kontingentziengatiko arriskuak eta jasotako transferentzietan aldakortasun handia dagoelako.

Gainera, txostenak ondorioztatu du Udal artekaritzak jaulkitako txostenaren arabera, **2015ean aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dela.**

Udalak zein erakunde autonomo eta sozietate publikoek zuzentasunez bete dute bere ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz unean uneko zenbait akats azaleratu diren langilerian eta administrazioko kontratazioan; **langileriaren atalean** Lanpostu zerrenda falta da erakunde autonomoetan eta txanda kontratu bat gauzatu izanaren ondorioz langileria finkoa gehitu da Barakaldo Antzokian; **administrazioko kontratazioaren atalean**, berriz, akatsak atzeman dira 5 kontraturen

esleipen prozeduran, guztira 1,3 milioi euroan esleitutakoetan, eta 5 kontraturen luzapenean, 2015eko ekitaldian 2,1 milioi euroren gastua eragin dutenak epeak iraungiak egon arren, batik bat, kontratu berriak esleitzerakoan berandutu izanaren ondorioz.